



Korrika Txikirako eta Korrikarako prest

Ekitaldi nagusiak ostiral goizean hasiko dira, Andoainen eta Urnietan / 8-9

AIURRI



Urnietako Udala Korrika Kulturala, Korrika Txikia eta Korrikarekin bat

Klika
21. korrika
2019ko martxoaren 24an hasi
GARESTIK GASTEIZA

Euskarak euskaldun egiten gaituelako





27 partidatan 23 garaipen lortu dituzte. Sekulako denboraldia Erregional Preferente mailako jokalariena. Ubitarteko harmailetan poza nagusitu zen, larunbat arratsaldean. AIURRI

Denboraldi bikainari saria Ubitarte zelaian

Korrika, Euskaldunako jokalariek azkar batean lortu dute igoera. Aukera izan duten lehen partidatan, urrutira joan gabe. Etxekoen babesean, partida gogoangarria jokatu zuten Ubitarten. Klika, berehala zabaldu zen lorpenaren albistea sareetan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN
Martxoaren amaieran, 25. jardunaldian garaipena lortu ostean, jokalaria ametsezko egoera irudikatzen hasi ziren: Igoera lehen aukeran lortu beharra zegoen, Andoaingo Ubitarte zelaian. Eta zaletuen aurrean. Denboraldi bikaina egiten ari ziren, ia partida bakoitzean garaipena lortuz. Beste bat gehiago lortu beharra zegoen, Andoain ahal zela. Aurkaria ere ez zirudien zaila zenik. Joanekoan, urdiñek 1-5eko garaipen argia lortu zuten

beratarren zelaian. Iritsi zen larunbata, ametsezko egoera gauzatzeko unea, eta ez zuten hutsik egin. Garaipena, liga eta poza. Poz handia. Igande goizaldera arte luzatu ziren bibak eta oihuak, Andoaingo kaleetan. Kirol lorpen handi hori lortzeko meritua handiena jokalariena eta lantalde osoarena da. Baita zuzendaritzarena ere. Merituen zerrendan ezin aipatu gabe utzi Joxean Huizi lehen-dakari ohia. Pozik legoke, oso pozik, gure artean egongo balitz.

FUTBOLA	
PREFERENTE MAILA	
EMAITZAK, 27. JARDUNALDIA	
Euskalduna-Gure Txokoa	3-2
Urnieta-Ostadar	2-0
SAILKAPENA	
1 Euskalduna	71 puntu
2 Touring	61 puntu
3 Mundarro	57 puntu
4 Baskonia	55 puntu
11 Urnieta	28 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK	
17:30 Touring-Euskalduna / Lar, 13	
16:00 Urnieta-Orioko / Lar, 13	

"Eskerrak eman nahi dizkiet Ubitartera hurbildu diren zaletuei"

JULEN LOIDI KAPITAINA

3-2 ozta-ozta irabazi, baina azkenean garaipena lortu duzue.

Irabazi beharra zegoen gaur, festa guztia antolatuta zegoelako. Ezin genuen kale egin. Asko sufrituta baina azkenean lortu ditugu hiru puntuak. Garaia lortuta, disfrutatzea tokatzen da orain.

Astez aste ibili zarete sailkapenaren gaikaldean. Azkenean garaipenarekin batera igoera eskuratu duzue.

Bai, horren zain geunden. Ea igoeraren aukera noiz lortzen genuen. Eskura izan dugun lehen aukeran lortu dugu. Aukera aprobetxatzen jakin dugu. Hiru jardunaldi falta dira liga amaitzeko, eta orain



AIURRI

behintzat jokalariei lortutakoaz gozatzea dagokigu.

Zaletuak, gainera, zuen alboan izan dituzue. Zer esango zenieke?

Zaletuen erantzuna ikaragarria izan da, eta horrek guri indar handia eman digu.

Eskerrak eman nahi dizkiet Ubitarte zelaira hurbildu diren denei.

“Ez da batere erraza horrelako partida bat jokatzea”

IKER DORRONSORO ENTRENATZAILEA

Hamar minutu garaipena lortu duzuela. Nola sentitzen zara?

Garaipenarekin igoera lortu dugu, sari potoloa. Bi urteotako lana izan da, eta denbora horretan jokalarien inplikazioa oso handia izan da. Garbi dago lanak bere fruitua eman duela.

Gaurkoan larri ibili zarete, halere. Urduritasun gehiegi akaso?

Horrelako partida jokatzeko ez da batere erraza izaten. Gola sartu dugu, berdinketa lortu dute... atsedernaldia iritsi aurretik berriro aurretik jartzea garrantzitsua izan da. Bigarren zatian lortu dugu 3-1eko baina argi dago partida amaitu arte jokatu beharra dagoela. 90. minutuan sartu dute 3-2koa. Eurek aurrealdean jokalariei indartsuak dituzte. Partida gogorra izan da, bai.



AIURRI

Liga erregularra egin duzue.

Bai, iaz oso denboraldi ona egin genuen. 65 punturekin hirugarren postua lortu genuen. Aurre denboraldi honetan, abuztuan, iazko puntuaketa igo behar genuela adierazten genien. Eta hiru partidaren faltan, 81 puntu egon dira jokoan eta 71 lortu ditugu. Datuak hor daude, 27 partidatatik 23 irabazi ditugu. Jokalariei zorionak eman beharrean gaude.



ZABALIK

XABIER LASA BERGARA KAZETARIA

Emozioen leherketa

Urduritasuna sumatzen zen futbolzaleen artean, larunbat arratsaldean. Ubitarten jokaturako 13 partidak irabazita, sailkapenean atzean dabilen Gure Txokoaren aurkako neurketak, logikaz, erraza zirudien. Baina urdiñei erantzukizunak gainezka egin zion, tarteka, partidaren zehar. Jokalariek Dorronsoro entrenatzailearen aginduak, bereziki soseguz aritzeko aholkua, betetzea lortu zuten.

Asier Iraola atezainaren eremura bizpahirutan iritsita, bi gol sartu zituen Gure Txokoak. Baina gol bat gehiago sartu zuen Euskaldunak, eta horrela lortu zuten helburua.

Gora Kale Txiki txaranga Ubitarten izatea eskertzekoa izan zen. Zaletu ugari dantzan eta kantuan jartzea lortu zuten. Eta, era berean, askoren

urduritasuna zertxobait kanporatu ahal izatea ere.

Epaileak amaiera agindu zuenean, orduan bai, emozio guztien leherketa estratosferikoa gertatu zen. Jokalariak eta entrenatzailea jausika, garrasika, elkarri besarkatuta. Azkar batean zelaira atera ziren dozenaka haur eta gaztetxo, ordura arte txintxo-txintxo egon eta gero.

Zirragarria izan zen irudia: oso atzera joan behar da Andoainen antzeko ospakizuna gogoratzeko. Eta zirragarria izan zen klub osoa –taldeko teknikariak, goi mailako jokalariek eta behe mailatako jokalariek, zuzendaritza batzorde kideak eta zaletuak, denak batuta– elastiko urdinarekin erabat identikatuta ikustea.

Joxean Huizi zenak hasitako bidetari segida eman dio Salba

Parada gidatzen duen zuzendaritza taldeak, eta dagoeneko hasi dira lanaren fruituak jasotzen. Emakumezko jokalarien hazkundea izan zen lehen emaitza pozgarria, eta larunbatean lortutako igoera bigarren emaitza.

Bide onetik doazen seinale da.

Erregional mailakoei geratzen zaizkien hiru jardunalditan txapelaz gozatzea dagokie. Eta zuzendaritzari, hurrengo urtera begirako taldea planifikatzen hastea; Gorengo mailatik Ohorezko mailara dagoen koska ahalik eta arinena izan dadin.

Bi detaile gehiago, bukatzeko. Dorronsoro eta jokalarien arteko sintonia ona, eta elkar komunikatzeko euskaraz aritzea.





IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

Aiurriko “Postontzia” atalean, (Aiurri, 603. zenbakia. 2019ko apirilaren 5ekoa) PSE-EEren erantzunari erantzunez:

Aiurriko “Postontzia” atalean, (Aiurri, 603. zenbakia. 2019ko apirilaren 5ekoa) PSE-EEren erantzunari erantzunez:

- Edukiontzien irekiera astean 4 alditara (pixoihalak gehiagotan) mugatzea teknikarien gomendioa izan zen, informe batean ageri dena, hauek gomendioak bakarrik egin baititzakete. Azken erabakia beti politikoa da. Honenbestez, erabaki teknikoak nahiz politikoa izan zen. Lurrazpiko edukiontziak ezabatzeke erabakiaren inguruan, jada 2014/01/07ko Hondakinaren Mahaiko aktan Mankomunitateko teknikariak lurrazpiko edukiontziak kentzea gomendatzen du, suposatzen duten gastu handia aurreztu eta bilketa sistema motak bateratzearren.
- Edukiontzi gehienen berrikuntzari dagokionez, denboran bat etorri direla esan nahi genuen.
- Bestalde, herritar gehienei organikorako materiala banatzeak ekarri duela datuen igoera diozuenean, ez gaude ados. Alde batetik horrek zerikusia izan badu ere, gaikako bilketaren igoera gehienbat edukiontzi grisaren itxierak eta mugatzeak ekarri duela argi dago, inguruko beste udalerri askotan ikusi ahal izan den moduan.
- Adibidez, Zumarraga, Urretxu eta Beasainen argi ikusi da hori. Bertan errefusaren edukiontzia astean 2 egun zehatzetan zabaldu daiteke (astelehena eta ostirala, pixoihalak ere egunero bota daitezke

edukiontzia berezietan), eta hilabetez hilabete datuak %70ko gaikako bilketatik gora egon dira sistema berria ezarri ondoren. Hori gutxi balitz, udalerrri horietan guztietan PSE-EEk aldeko bozka eman dio sistema berri horri, udal horietan guztietan dauden alderdi politiko guztien adostasunarekin batera, erabateko adostasunera ailegatuz, beraz.

- Tolosa aipatzen duzue. Benetan aipatzen duzue adibide hori? Zergatik ez duzue aipatzen Zumarraga, non PSE-EEK alkatetza duen eta edukiontzi grisa irekiera mugatuarekin duten, eta erabateko adostasunera ailegatu ziren?
- Tolosan lehen edukiontzi itxiak eta irekiera mugatukoak zituzten materia organikoa eta errefuserako. Horiek kendu zituzten eta edukiontzi irekiak ezarri. Zalantzarik gabe, gaikako bilketari dagokionez, zituzten ohitura onak eta datuak nahiko ongi mantendu dituzte, ez horrela organikoaren kalitatea, inpropioak %19ra ere ailegatu baitira, eta GHKK atentzioa deitu die.
- Andoaingo sistema berriak, orain arteko erritmo bera mantendu ezkerro, urtean 150.000 euroko aurrezpena ekarriko digu andoaindarroi, errefusaren jaitsieragatik. Doktor Huiziko parkearen kostua haina.
- Azaldutako arrazoiengatik, PSE-EEri eskatzen diogu bere jarrera alda dezala eta hondakinen bilketa sistema berria onartu dezala.



UDAL HAUTESKUNDEAK

Irabazi Andoain alderdiaren agintaldiko balorazioa

Andoaingo Irabazi alderdiko
zinegotzi eta Ezker Anitza-
IUko Batzordeko
koordinatzaile den Jorge
Mourinhok 2015-2019
legegintzaldiari buruzko
balantzea egin du. Eskerrak
ematearekin batera, maiatzean
Podemos Ahal Dugu
markapean aurkeztuko direla
iragarri du.

Eskertu egin du bukatzera
doan legeintzaldi osoan
militantziak eskaini dion
laguntza eta erakutsi duen
konpromisua, ezkerreko beste
alderdiekin ekintza
bateratuaren alde lan egiteko
orduan.

Mourinhok 2015-2019 legegintzaldian adostutako udal aurrekontuak nabarmendu ditu, hainbat neurri aurrerakoi ezarri ahal izan direlako, bere ustez: “zerbitzu publikoen publikazioaren aldeko politikak, mailakako tasak, gizarte izaera duten eta berdintasuna bultzatzen duten programak, hainbat inbertsio (Arrate pilotalekua, alokairu sozialari begirako udal etxebizitzak...)...”. Gaineratu duenez, udal gobernuarekin 2019an akordio berria sinatu dute, eta horren bitartez “gure udal programak jasotzen zituen politikak sendotuko ditu”.



Jorge Mourinho, Irabazi Andoain alderdiko zinegotzia amaitzen ari den agintaldian. AIURRI

Mourinhok adierazi du aipatu udal politika hori “alderdi ezkertiar eta eraldatzaileek elkarrekin erakutsi duten ekintza batasunari esker” izan dela.

Etorkizunari begira, alderdiak erronka berri bati ekin beharko diola gaineratu du Mourinhok. “Talde berri batek segiko du lanean, pertsonak eta beren ongizatea lehenesten dituzten politikak aurrera eramateko asmoz, posible delako udalgintza parte hartzaileagoa eta gardenagoa egitea”.

Guzti hori ahalbidetzeko,
“premiatzkoa izango da
andoaindaren konfiantza

eskuratzeari eta
hauteskundeetako zenbakiak
alde izatea; horrexegatik,
funtsezkoa izango da geure
afiliatu eta jarraitzaileen
konpromisua eta laguntza”,
Irabaziko zinegotziaren
ustetan.

Azkenik, zera iragarri du Mourihok: “Amaitzearen den legegintzaldian pilatu dugun eskarmentuak adierazten digu ezinbestekoa dela ekintza batasuna, eta alde horretatik, Irabazi Andoaingo Podemos-Ahal Dugurekin batera zerrenda bakarrean aurkeztu da, Andoaingo Elkarrekin Podemos, Ezker-Anitza Izquierda Unida izenarekin”.

POSTONTZIA

Sinatutako gutunak argitaratzeko posta elektronikoak: andoain@aiurri.eus | urnieta@aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aiurri eskuragarri:
Etkez etzeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko
harpidetza-saria 37 eurokoa da.
Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta
merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubedia.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetak:
 Garbine Ugartemendia.
 idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
 publikitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain),
 Isabel Salaberria (Urnietea).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia:
 diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
 Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-107/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.

www.aiurri.eus

AIURRI



- **Iritzia**
- **Postontzia**



Ikasleak ikas bidaian dira egun hauetan. Urnietako dendariak, eskertza adierazteko, ikas bidaian zehar probetxua ateratzeko diru ekarpena egin diete. Egitasmo hau aurrera eramateko ezin aipatu gabe utzi Urnietako Udalaren, On Biziren eta Jolas eta Ekin elkarten arteko elkarlana. AIURRI

Urnietako merkataritzaz kontzientzia hartzeko egitasmoari saria

Urnietako dendariak Egape ikastolako ikasle talde batek egindako lanari esker ona adierazi zioten, ostegun eguerdian Lekaion egin zuten ekitalditzoan. Ikasleek merkataritzaren inguruko mapa landu dute, herriko merkatarien beharraz ohartarazteko

Erredakzioa URNIETA

Tokian tokiko merkataritza, salbuespenak salbuespen, egoera zailean dago. Urnieta, esaterako, Donostialdeko hedadura handiko merkatalguneetatik distantzia gutxira dago. Azken hamarkadatan mugikortasuna ikaragarri erraztu da, eta horrek onurak eta galerak ekarri ditu. Betiko merkataritxiarentzat, merkatalgune handiekin lehiatzea ia ezinezkoa da. Iraunbizitzea herriko dendari askoren errealitate gordina da.

Urnietako dendariak, ikasturte honetan, ekimen polit baten lekuko izan dira. Egape ikastolako ikasle talde batek, herriko merkataritza sustatzeko ekimen praktikoa aurrera eraman baitu. Hasteko eta behin, Urnietako mapa tamaina handian marraztu zuten. Bertan herriko merkatalguneak ipini zituzten, bakoitzaren informazioa erantsiz. Ekimena osatze aldera, Santo Tomas egunaren bueltan, herriko merkatariek emandako produktuekin saskiak prestatu eta zozketatu egin zituzten. Plantxa, urdaiazpikoa... saskietan primerako osagaiak aurki zitezkeen. Egindakoa borobiltzeko, ekimen osoa bideo batean landu zuten.

Peio Urretabizkaiaren esker ona

Muazpi harategiko dendariak poza eta eskertza adierazi zien, Lekaion egin zuten ekitaldian: "Zuek egindako lana bultzada izan da guretzat. Horrelako ekimenak behar beharrezkoak ditugu Urnietan. Eskertzekoa da zuen ahalegina".

Aiurriri zehaztapen gehiago eman zizkion harakinak: "Urnietako denda txikien egoera azaltzea eta kontzientzia sortzea, hori zen helburua. Nerabe diren aldetik horrelako ardura erakustea txalogarria da. Urnietako dendari txikiak, beste toki batzuetan bezala, arrisku egoeran daude. Errealitate horri erreparatu diote, eta guretzat garrantzia handikoa da".

ERA BAKI.

Donostia Ekitaldia

Apirilak 18 · 19:00

Miramar jauregia

ehbildu



Manex Olazagirre eta Jokin Jauregi Andoaingo musikari gazteak. XABIER JAUREGI

Erresuma Batura, Euskadiko Ikasleen Orkestrarekin

Manex Olazagirre eta Jokin Jauregi Andoaingo musikari gazteen erronka berria, datozen egunetan

Erredakzioa ANDOAIN

Aste Santuko oporraldia ez ohi-koa izango da Jokin Jauregi tronpeta jolearentzat eta Manex Olazagirre perkusio jolearentzat. Biak ala biak Erresuma Batura doaz, Euskadiko Ikasleen Orkestrarekin emanaldi ezberdinak eskaintzera.

Ostiral honetan Londonera abiatuko dira. Hiru egunez hango musikariek entseguak egin eta gero, apirilaren 16an lehen emanaldia eskainiko dute Nottinghameko Albert Hall aretoan. Apirilaren 17an, berriz, Cambridgera abiatuko dira. Univer-

sity Concert Hall aretoan eskainiko dute bigarren emanaldia.

Handik itzuli eta Euskal Herrian beste hiru kontzertu gehiago eskainiko dituzte. Apirilaren 18an Gasteizen, apirilaren 19an Donostiako Musiken eta apirilaren 20an Bilboko Arriaga antzokian.

Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestra

Manex Olazagirrek emanaldi gehiago eskainiko ditu Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestrarekin. Besteak beste, Laguardian eta Donostian.



AIURRI

Jalgi banda plazara

Bastero Kulturgunean maila handiko emanaldia eskaini eta gero, Deba eta Legazpiko musika bandak Andoaingo kaleetan zuzenean aritu ziren, Andoaingo Udal musika eskolako bandarekin batera. Aingurasutegitik, Kaleberritik eta Zumea kaletik iritsi ondoren, denek elkarrekin saio berezia eskaini zuten Zumea plazan. Banda bilkura aberasgarria izan zen denentzat.



Ertzaintzak, Osakidetzak eta Andoaingo Udalak indarkeria matxistari aurre egiteko protokoloa sinatu dute. AIURRI

Ekimen aitzindaria tokiko administrazioan

Andoaingo Udalak, Osakidetzak eta Ertzaintzak indarkeria matxistak eragindako biktimak artatzeko protokoloa adostu eta sinatu dute. Tokiko administrazioaren alorrean, Andoain herria aitzindaria da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

"Indarkeria matxista oinarritzko giza eskubideak zapaltzen dituen errealitatea da. Urtero ehunka biktima sortzen ditu, urteetan milaka, eta instituzio publikoek pertsona horien eskubideen erreparaziorako prozesuan gure ardura betetzen hasi behar dugu". Ana Carrere alkatearen adierazpenean, argi azaltzen da zein den Andoaingo Udalaren asmoa.

Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako 4/2005 izeneko legeak erakundearen arteko akordioak lortu behar direla zehazten du. Andoaingo Udalak bide horretan sakondu du, akordioa sustatuz eta lortuz. Joan zen astean Ertzaintzarekin eta Osakidetzarekin batera aurkeztu zuten protokoloa aitzindaria da. Andoain, beraz, alor honetako hitzarmengintzan lehen lerroan dago.

Gizartea gehien asaldatzen duen arazoa da, egun, sexu erasoena. Kasu guztietan ondorioak larriak dira. Hiltzen ez dituzten

kasuetan, bizirik ateratzea lortzen dutenek ondorio latzak pairatzen dituzte. Zer egin, bada, kasu horietan? Erakunde ezberdinak martxan jarri dira, artatze prozesua koordinatua eta bateratua izan dadin.

Andoainen sinatu duten hitzarmenak, gainera, biktimari berme gehiago eskaintzen dizkio. Istanbulko akordioak bereganatu ditu, esaterako. Nazioarteko araudian indarkeria matxistari aurre egiteko ematen diren urrats berrienekin bat eginez.

Erreparazio eskubidea

Andoainen sinatu duten protokoloaren arabera, biktimari erreparazio eskubidea aitortuko zaio. Hots, biktimari ordainsaria,

CARREREK LANKETAN PARTE HARTU DUTEN ERAGILEEI ETA BIKTIMEI ESKER ONA ADIERAZI ZIEN

errehabilitazioa eta berriro ez errepikatzeke bermea eskainiko zaizkio.

Aitzindaria den egitasmoa eragile askoren lanari esker lortu ahal izan da. Ana Carrere alkateak eragile horiek guztiak zerrendatu zituen: "Eskerrak eman nahi dizkiogu Osakidetzari, Ertzaintzari, Andoaingo ikas-etxe gutziei, eta Udal zerbitzu ezberdinei: Udaltzaingoa, Gazte Lokala, Gizarte Zerbitzuak, Berdintasun Saila eta alderdi politikoetako ordezkariak".

Horiez guztiez gain, hainbat biktimen lekukotzak aintzat hartu zituzten: "Hainbat biktimen eta herritarren hitza jasotzeko aukera izan dugu. Euren guztien lanari esker, EAEn lehen aldiz erreparazio eskubidea modu tranbersalean jasotzen duen protokoloa dugu".

Indarkeria matxistaren aurkako borrokan lanean jarraitzeko deia luzatuz, protokoloaren sinadura ekitaldiari amaiera eman zioten.

Urki dantza taldearen udaberriko emanaldia Bastero Kulturgunean



Dantza zaleen gozamenerako ikuskizuna prestatu zuten. Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoako dantzak taularatu zituzten, batik bat: Agurra, Zortziko Alpargata, Upelategi, Makil Txiki, Brokel Dantza, Erribera, Uztai Txiki, Fandango eta arin-arin, Otsagi, Iurreta, Oriako Sorgin Dantza eta Arratia. Joxema Setien, Fernando Gonzalez, Ane Amutxastegi, Ion Iraola, Joseba Iriarte, Xabat Miner eta Gotzon Huitzi musikari lanetan aritu ziren. Aiurri.eus gunean bideoak eta argazkiak.

Kantu liburuxka
2 0 1 9
ARCITALKEN BERETIA
AIURRI

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Astarbe
943 551 527 Astigarraga

Gaztañaga
943 591 968 Andoain

Larre-gain
943 555 846 Ereñozu-Hernani

Mizpiradi
943 593 954 Andoain

R. Zabala
943 690 774 Aduna

Sarasola
943 690 283 Asteasu

Sagardoa Route
943 336 811 Gipuzkoa

Hotel K10
943 337 357 Urnieta

Amasa-Villabonako Udala
943 692 100

Andoaingo Udala
943 300 830

Urnietako Udala
943 008 000



Korrikarekin bat egin dutenen elkarteetako ordezkariak petoa eta argibideak jaso zituzten apirilaren 4an, Zumea plazan amaitu zen Peto potea. AIURRI

Kultura, kirol eta gizarte mailako taldeen eta eragileen babes zabala

Korrikaren lekukoa eramango duten erakunde eta elkarten izenei erreparatuta, Andoaingo eta Urnietako gizarte zabalak euskararen lasterketarekin bat egin duela esan daiteke. Zumea plazako petoen banaketa ekitaldian ere, irudi zabal hori lortu zen

Jon Ander Ubeda URNIETA

Goizeko ordu txikietan igaroko da Korrika, eta hori dela eta Korrika Txikia ostiral goizera-ko deitu dute. Andoaingo eta Urnietako ikastetxeetako haur eta gaztetxoek Korrikarekin eta euskararekin bat egin ahal izango dute. Bi herrietako egitaraua beretsua da, kantu kalejirarekin eta afariarekin. Goizaldean iritsiko da une majikoa.

URNIETA

OSTIRALA 12

11:30 Korrika txikia eta ekitaldia.

19:00 Kantujira kalez kale.

21:00 Afaria Oianumen, bertso eskolako partaidetzarekin.

ANDOAIN

OSTIRALA 12

10:00 Korrika txikia eta ekitaldia.

20:00 Kantujira kalez kale.

21:30 Afaria Basteron. 01:00ak aldera, kalejira.



Katramila taldeak Peto potea kalejira alaia gidatu zuen. AIURRI

33 talderen babesa Andoainen

Arrospe galdaragintza, Leizaran eskubaloi taldea, Leitz MTB taldea, Gazteleku pilota eskola, Andoaingo txirrindulari eskola, Euskalduna Mendigoizale taldea, Martin Ugalde Kultur Parkea, Berriako langileak, La Salle-Berrozpeko ikasleak, La Salle-Berrozpeko langileak, Aita Larramendi Ikastolako batzordea, Ondarreta-Leizaran, Aiurri-Larramendi Bazkuna, Aita Larramendi Ikastolako langileak, Udala langileak, Udala, Hurria-Sahara, EH Bildu, Asanblada Feminista, Santa Krutz Peña, Zumeatarra, Ontza, Kotoi, Erraldoiak eta buruhandiak, Andoaingo Emakumeak, Sega, Axeri dantza, Gaztetxea, Ezker Abertzalea, Aita Larramendi ikastolako ikasleak eta Oroituz.



Korrikaren ibilbidea eta ordutegiak Andoaindik eta Urnietatik barrena

Hernanitik dator Korrika.

URNIETA

01:54:00 | 2162

Poxta Zahar:

Mandazubiko biribilgunea-Langarda aldaparen amaiera.

01:58:10 | 2163

Lagun taldea:

Langarda aldaparen amaiera-Goi mendi.

02:03:53 | 2164

Zanpatuz:

Goi mendi-Magale.

02:06:25 | 2165

Urnietako Udala:

Magale-Kantoi.

02:08:41 | 2166

Egape ikastola:

Kantoi- Arantzubiko biribilgunea.

02:10:31 | 2167

Egape dantza taldea:

Arantzubiko biribilgunea-Denda Berri biribilgunea.

02:12:00 | 2168

Magale ikastetxea:

Denda Berri biribilgunea-Salestarrak.

02:13:18 | 2169

Urnietako AEK:

Salestarrak-HK10 hoteleko biribilgunea.

02:15:15 | 2170

Esnelateko langileak:

HK10 hoteleko biribilgunea-Zelai jatetxea.

ANDOAIN

02:20:14 | 2171

Arrospe galdaragintza:

Zelai jatetxea-Super Amara.

Leitz, Gazteleku, Leizaran, Andoingo, Euskalduna MT:

Super Amara-Braher.

02:26:14 | 2172

Emeki Emeki:

Braher-Altuna.

Euskalduna futbol taldea:

Altuna-Somuga.

Martin Ugalde Kultur Parkeko langileak:

Somuga-Martin Ugalde Kultur Parkea.

02:32:14 | 2173

Berriako langileak:

Martin Ugalde Kultur Parkea-Arantzibia tunela.

Lasalle-Berrozpeko langileak:

Arantzibia tunela-Erroitx kalea.

Lasalle-Berrozpeko ikasleak:

Erroitx kalea-La Salle Berrozpe ikastetxea.

02:38:44 | 2174

Aita Larramendi ikastolako batzordea:

Goikoplaza-Dr Huitzi.

Ondarreta-Leizaran ikastetxeak:

Dr. Huitzi-Eskilara mekanikoak.

Aiurri-Larramendi Bazkuna:

Dr. Huitzi kaleko eskilara mekanikoak-Stop.

Aita Larramendi ikastolako langileak:

Stop-Agustin Leitza.

Anodoingo Udal langileak:

Agustin Leitza-Lanbroa.

02:45:14 | 2175

Andoingo Udala:

Lanbroa-Akerbeltz.

Hurria-Sahara:

Akerbeltz-Agustin Leitza elkartea.

EH Bildu:

Agustin Leitza elkartea-Kale Nagusia.

Andoingo Asanblada Feminista:

Kale Nagusia-Bastero.

Zumeatarra, Peña S.Krutz, Ontza, Kotoi:

Bastero-Laborala.

Erraldoien konpartsa:

Laborala-Maiza.

Andoingo emakumeak:

Maiza-Txurreria.

02:51:44 | 2176

SEGA:

Txurreria-Guipuzcoano.

Axeri dantza:

Guipuzcoano-Larramendiko Kutxa.

Gaztetxea:

Larramendiko Kutxa-Gaztetxea.

Ezker abertzalea:

Gaztetxea-Aiztondo hasiera.

02:58:14 | 2177

Aita Larramendi ikastolako ikasleak:

Aiztondo hasiera-Sorabilla hasiera.

Oroituz:

Sorabilla hasiera-Bidegurutzea.

Asteasuko Udala:

Bidegurutzea-Balastrain.

Asteasuko Pello Errota:

Balastraindik aurrera.

Aduna-Tolosa aldera doa Korrika.

IDK Gipuzkoako andoaindarra

ROGE MIGUEZ CAF-EN LANGILE ETA IDK GIPUZKOAKO BIGARREN ENTRENATZAILEA
SASKIBALOIA CAFeko proiektuak, saskibaloiairen askatasuna, familiaren babesa..., Denerako tokia bilatu ezinik bizi da andoaindarra, baina gustuko tokian aldaparik ez

Andoni Urbistondo URNIETA

Puntual iritsi da hitzordura Roge Miguez (Andoain, 35 urte). Andoaindik Donostiara bidean geldialditxo egin du Urnietako HK10 hotelean. CAF enpresatik etxera, etxetik Josean Gasca pabilioira, eta handik etxera. 7 hilabetez erritmo itoa, etxeko emaztea eta hiru seme alabekin ordu gutxi egonda. Baina saskibaloia ematen dio indarra, satisfakzioa, eta etxeko laguntzarekin, aurrera jarraituko du. Lanbidea lehenetsiz, IDK taldearen play-offak atzerritik jarraitu beharko baititu.

Nor da Roge Miguez?

35 urteko andoaindarra. La Salle eskolan ikasi eta bertan hasi nintzen saskibaloian jokatzeko, eta kadeteetan Gipuzkoako selekzioarekin. Askatuak taldetik deitu ziguten, eta bi urte egin genituen kadeteetan eta jubenetan. Ia-ia oharkabea, gaztetxoak entrenatzen hasi nintzen. Pixkanaka tituluak eskuratzen hasi nintzen, eta Hernanin klub bat sortzeko aukera sortu zen. Han egon nintzen urte batzuetan, baina Unibertsitateko taldeari lotuta, beti ere. Muntaketako gradu ikasketa lortu nuen 19-20 urterekin, eta berehala CAFen lanean hasi. 2009an Brasilera joan nintzen bi urtez, hemen egiten nuen guztia utzita. Bueltan goi mailako entrenatzaile titulua atera nuen, ikastaroa Donostian zela baliatuz, eta pixkanaka eta IDK Gipuzkoa Basket taldeko entrenatzaile Azu Muguruzaren eskutik, taldeko dinamikan sartu nintzen. Espainiako LF-2 mailan aritu ginen aurrena, bigarren mailan, eta Huelvan eta Caceresen igoera play-offak jokatu genituen. Caceresen sari potoloa lortu genuen, Lehen Mailan jokatzeko txartela.



Azu Muguruza eta Roge Miguez, taldea zuzentzen partida batean. L.GARCIA

2013 urtea zen. Urte horretatik aurrera serioago hartu nuen nire entrenatzaile laguntzaile jarduna. Azuk esan zidan delegatu on bat behar zuela, langile fin bat, eta urte eta erdi Eva Gonzalezekin, aurretik zegoen delegatuarekin partekatu nuen lana. Hortik aurrera, bakarrik, Gonzalezek utzi egin behar izan zuelako. 2014ko Eguberrietatik aurrera entrena-tzaile laguntzailea naiz.

Zein da zure lana, zehazki?

Astero arratsaldetan egiten ditugun lau lan saioetan parte hartzen dut, goizekoetan ezin dudalako: astelehena, astearte, asteazkena eta ostirala. Izan bideoa, jaurtiketak, alor taktikoa, partidak... Zeregin asko ditut. Eta gero bideo analisia, aurkariaren scouting-a. Egun funtsezkoa bilakatu da, aurkaria xehatu, jokalariz jokalaria analisi zehatza egin, ze jokaldi egiten dituzten eta beste... 3 partida, 120 minutu prestatzen ditugu, 20-25 bat minutuko hiru bideo jokalariei, eta gero, esan bezala, jokalarien ezaugarriak banan bana. Informazio asko dago, eta neurtu egin behar dugu.

Nolakoa da zure egunerokoa?

Luzea... Goizeko 06:00tan jaikitzen naiz, 07:00tarako Beasainen lanpostuan. 15:00tarako etxean, bazkalduta. Atsedean txiki bat hartu, txandala jantzi eta Donostiara, eguneko lanak egitera. Etxera bueltatzerako 21:00ak dira, gutxienez. Bidaia, hotelak..., askotan gu geu gara gauza horiek antolatzen ditugunak. Orduak azkar pasatzen dira.

Eta etxean, festa... Familia ugaria zarete!

Bai, hiru seme-alaba ditut. Uxue lau urtekoa, eta bi biki, urte batekoak: Unai eta Ion. Idoia emaztea santu bat da, eta horri esker, ia egun guztia etxetik kanpo pasa dezaket. Askotan etxera iritsi eta negar marrurik ez entzuteak arduratzen nau, horrek etxean lasai daudela esan nahi duelako. Afaltzen dut, Idoia emaztearekin egon, ordenagailuarekin beste gauza batzuk egin... eta gauerdia jota ohera. Azkenean lo orduak lapurtuz egiten duzu aurrera.

Martxa horrekin, emazteak dagoneko etxetik bota ez bazaitu, konforme...

Bera eskubaloia jokalaria izana da, badaki kirolari grina edukitzea zer den, eta ulertzen du niretzat eguneko ordu horiek oso garrantzitsuak direla, gus-

tura ari naizela, ez dirua irabazteko, atsegin dudana zerbait delako baizik. Saskibaloia halako bizipoza, indarra ematen dit egunerokoa. Partida guztietara etortzen da, eta Manoli bere amak, nire amaginarrebak ere, asko laguntzen gaitu.

Emakumezkoen denboraldia ere ez da oso luzea.

Ez, 7 bat hilabete, irailean entrenamenduak hasi, eta martxoa bukatu bitarte, beste aste pare bat play-offak jokatzeko badituzu. Asteburuetan ere, bat kanpoan egiten dugu, eta bestea etxean, eta ondo eramaten dut, 7 hilabete azkar pasatzen direlako. CAF, saskibaloia eta kito, horrela joaten dira egunak niretzat.

Zer da gogorragoa, CAFeko langile eta saskibaloia entrenatzaile izatea, edo umeak heztea?

Umeekin denboraren nozioa galtzen duzu. Uxue jaio zenean, lau urte atzera, izan nuen tentazioaren bat saskibaloia uzteko. Bigarrenaren bila joan ginen, eta bikiak etorri ziren. Emazteak dauka ardura handiena, eta eskertzen diot. Saskibaloia hobby bat da niretzat, ez dit onura ekonomikorik suposatzen, Donostian IDKekin irabazitakoa etxean laguntzen duen langilea kontratatzeke erabiltzen baitut. Asperitzen naizenean utziko dut, baina oraingoz oso gustura nago.

Zein da zure lana CAF-en?

Muntaketa talde bateko enkargatua naiz. Proiektu bakoitzean zeregin ezberdinak ditugu, gure lana enkarguak puntual kunplitzea da. Dena oso ondo egitura-tuta dago, ataletan. Ardatz bakarrari esker mugitzen diren enpresa mordoa garela esango nuke. Prentsaren bitartez ezagutzen gaituztenontzat munstro handi bat gara, baina enpresa txiki askoko enpresa handi bat garela esango nuke.

Euskal Herrian zaudenean hainbeste, baina atzerrira bidaltzen zaituztenean zer? Orain Eskoziara zoaz, eta denbora luzerako; 12 aste...

Beno, hala da. Baldintza ekonomikoak onak dira CAFen, eta onartu beste erremediorik ez daukat. Beranduxeago izan eta saskibaloia liga bukatu ondoren

IDK GIPUZKOA BASKET LIGAKO PLAY-OFFARI EKIN DIO ASTE HONETAN, LIGAKO ONENEKIN BATERA

izango balitz, hobeto, baina badakizu, ezin diot uko egin, nire bizibidea CAFen dagoelako.

Glasgow hirian imajinatzen zaitut, internetera kateatuta, IDKren partidak streaming bitartez ikusten...

Bai, bai, ziur. Whatsapp piloa ere idatziko dizkiogu elkarri Azu Muguruzak eta delegatuak... Etxeko gauza gehienak ere lotuta utzi behar ditut, emazteak ahalik eta lan gutxiena izan dezan etxetik kanpo.

Lointek Gernika edo Cadi La Seu izango duzue aurkari final-laurdenetan. Bietatik zein nahiago duzu?

Gernikak oso bidaia erosoa dauka alde. Seu, aldiz, nahiko bidaia gaiztoa da, eta gainera oso gaizki letorkigukeena. Gironan jokatu dugu azken jardunaldian, igande arratsaldean, eta Cadi la Seuren aurka arituko gara, Seu d'Urgell-en asteazkenean. Alegia, astelehen goizaldean iritsi etxera, jipoi handia hartuta, eta astearte arratsean beste 700 kilometro nekoso busean, Seu d'Urgell arte. Lointek nahiago nuke, Cadi la Seu oso kirol une gozoan baitago.

Finaurrekoa jokatzeko aukera erreala al dauka IDK Gipuzkoa Basketek?

Bai, zergatik ez. Baten edo bestearen aurka, kanporaketa %60-40 dagoela esango nuke, Cadi La Seu edo Lointek Gernikak partida erabakigarria etxean jokatuko luketelako. Azken bi denboraldietako final-laurdenetako kanporaketetan 2-1 galdu genuen. Gernika eta La Seu menderatu ditugu Ligan etxean... halako abisuak ematen ari garela esango nuke, ez garela irabaz errazak.

Nola iritsiko da IDK play-offetara?

Ondo, aurreko bi denboraldietan baino hobeto, horietan justu-justu, azken orduan lortu genuelako kanporaketak jokatzeko txartela, eta fisikoki muga-mugan



Roge Miguez, kirol taldeak maiz hartzen dituen Urrietako HK10 hotelean. AIURRI

iritsi ginelako apirilera. Denboraldi honetan aste batzuk badira txartela lortu dugula, badakigu seigarren izango garela bai edo bai, eta karga arindu dugu pixka bat azken bi astetan, final-laurden horietara berriro bete-betean iristeko.

Zein parametron neurtu behar dugu IDKren jarduna, eta emakumezkoen saskibaloia?

Alderaketa egiteko pertsona egokiena ez naiz, agian... Bera Bera gu baino koska bat gorago dagoela esango nuke, Ligak irabazi eta European sarri ari delako. Emakumezkoen Realaren pare gaudela esango nuke, orain komunikabideetan oihartzun mediatiko handia lortzen ari bada ere. Aintzat hartu IDKren diru poltsa mugatua dela, urteko milioi erdi eurora ez dela iristen. Jendea ari da, pixkanaka hurbiltzen Gascara, baina kirol eskaintza aparta dago Gipuzkoan: Lehen Mailako bi talde futbolearen, Bidasoa eta Bera Bera, Gipuzkoa Basket ACBn... Ari gara, pausoak ematen, eta ez da gutxi.

Harrobirik ba al dago, maila gorenean emakumezkoen saskibaloia talde bat elikatzeke?

Jokatzen duen herrialdeko jokalaririk gehien dituen taldea gara Dia Ligan... Baina lehiakortasuna handitzen den neurrian, maila horretako neskak gora iristea ez da erraza izango. Eta gero Afrikako neska asko sekulako garaiera eta indarrarekin datoz, eta gurean ez daukagu dohain hori, zoritxarrez. Klub asko daude, lan ederra egiten dutenak, eta baikorra naiz.

Andoaingarra zarela esan duzu, herrigintzan publikoki aritu gabea zara, baina aurrerantzean laguntza emateko konpromisoa erakutsi duzu, EHBilduko herriko zerrendako kide izango baitzara.

Bai, hala da. Laguntasun handia daukat Andoni Alvarez hautagaiarekin, aspalditik, pilota eskolatik, eta eztabaida politiko eta sozial asko izan ditugu. Zerrendako kide izateko aukeraz mintzatu zitzaidan, estimutan ninduela, eskertuko lukeela nire laguntza, eta baiezkoa eman diot. Baina hautagaiak zerikusi zuzena izan du. Ziur aski beste hautagaiaren bat aurkeztu izan balitz ez nuke baiezkoa emango. Izan ere, askotan esan izan diot Andoniri ea zergatik ez zen aurkezten alkate gai moduan, eta aurtan animatu da.

MUNTAKETA TALDE BATEKO ARDURADUNA DA CAF LANTEGIAN, ETA IDK-KO BIGARREN ENTRENATZAILEA



Azu Muguruza, Roge Miguez eta Ibon Ocaña IDK taldeko partida batean. L.GARCIA

Lehen entrenatzailearen iritzia

Azu Muguruza IDK Gipuzkoa taldeko lehen entrenatzailea da, eta harengana jo dugu Roge Miguez buruzko adierazpenak eskaini ditzan.

Zer da bigarren entrenatzaileari eskatu ohi diozuna?

Eba Gonzalez aurreko entrenatzaileak, lan arrazoiak tarteko, taldea uztea erabaki zuenean Roge Miguez ordezkatu zuen. Taldean zegoen, gure dinamikan murgilduta. Beste funtzio batzuk betetzen zituen. Gonzalez postua betetzeko Miguez izan nuen gogoan. Lehenik eta behin, gure lan dinamikaren ezagutza handia zuelako. Taldea ezaguna zitzaien, hainbat lan egiten ari zelako. Bion arteko solasaldian, bera indartsuen sentitzen zen lanak egitea eskatu nion.

Egunerokoan, *scouting* lanak egiten hasten da. Aste osoko lanaldiaz arduratzen da, eta hark abiatutako lanari segida ematen diot nik. Lan hori oso ondo menderatzen du, eta espero dut

alor horretan piskanaka gauza gehiago egin ahal izatea.

Pistan, partida bakoitzeko lehen zatian parte hartzea izaten du. Eta, ondoren, jokalaririk bakoitzari bere jokoan hobekuntzak eta zehaztapenak egiten dizkio. Neuk jokorako irizpide orokorrak eskaintzen ditut, eta berak badaki jokalaririk bakoitzari zein zuzenketa egin behar dizkion.

Jokoaz harago, bidaia antolatze arduraren berea da.

Partida jokatzeko unea iritsi aurreko minutuetan alboan izaten dut beti. Aurrera eraman nahi ditugun defentsarako eta erasoko jokaldiak aipatu eta partidan zehar horiek aurrera eramateko ardura Rogerena da.

Feeling handia behar da.

Jokalariek ere feeling hori badute, Rogerekin.

Halaxe da, duen izakeragatik oso gertuko pertsonatzat dute. Zerbait eskatu nahi dutenean ez dira askotan niregana hurbiltzen, Rogerengana jotzen dute lehenbizi.

Igandean Gascan, eguerdiko 12:00tan

IDK Gipuzkoarentzat partida garrantzitsua izango da, Cadi La Seu taldearen aurka jokatuko duena. Buruz burukoaren bigarren partida izango da, igande honetan eguerdiko 12:00tan hasita. Asteazken iluntzean Seu de Urgell herrian final laurdenetako lehen partida jokatuko zuten. Eta buruz burukoaren bigarren partida Donostian izango da. Zaletuak gipuzkoarrak animatzera joateko aukera polita da. Bi partidak jokatuta, emaitza banakoa balitz, hirugarren partida jokatuko da hurrengo asteazkenean (apirilak 17), iluntzeko 20:00tan hasita Seu de Urgell herrian.

Kilometro asko pilatu dituzte IDKkoek, denbora tarte txikian. Astelehen goizaldean Gironatik iritsi ziren, busean egindako bidaian. Eta asteartean berriro abiatu ziren Kataluniara.



andoaINDARRA
euskaraz

FUTBOLA, ARETO FUTBOLA, ESKUBALOIA

ERREGIONAL MAILA		
KOPA		
Euskalduna-Ostadar		1-0
SAILKAPENA		
1	Euskalduna	10 puntu
2	Ostadar	9 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK		
17:30 Irauli-Euskalduna / Lar, 13		
GORENGO MAILA, NESKAK		
IGOERA FASEA		
Hondarribia-Urnieta		2-3
SAILKAPENA		
1	Intxaurdi	24 puntu
2	Urnieta	19 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA		
18:00 Urnieta-Añorga / Lar, 13		
KOPA		
Intxurre-Euskalduna		2-12
SAILKAPENA		
1	S.Tomas	18 puntu
2	Euskalduna	16 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA		
16:00 Euskalduna-Herrera / Lar, 13		
JUBENIL MAILA		
OHOREZKOA		
Ilintxa-Euskalduna		5-3
SAILKAPENA		
1	Mondragon	53 puntu
13	Euskalduna	33 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA		
15:30 Euskalduna-Urki / Lar, 13		
KOPA		
Euskalduna-Baskonia		2-3
SAILKAPENA		
1	Usurbil	19 puntu
5	Urnieta	14 puntu
7	Euskalduna	2 puntu
ASTEBURUKO PARTIDAK		
15:30 Urnieta-Euskalduna / Lar, 13		
KADETE MAILA, OHOREZKOA		
EMAITZA		
Touring-Euskalduna		3-0

ASTEBURUKO PARTIDA		
18:00 Euskalduna-Beti ona / Lar, 13		
KADETE MAILA, NESKAK		
KOPA		
Danena-Euskalduna		1-3
Urnieta-Luberri		1-0
SAILKAPENA		
1	Mundarro	23 puntu
3	Euskalduna	16 puntu
7	Urnieta	6 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA		
12:00 Euskalduna-Urnieta / Lar, 13		
KADETE MAILA, MUTILAK		
KOPA, 5. MULTZOA		
Urnieta A-Lengokoak B		1-3
ASTEBURUKO PARTIDA		
15:45 Ekintza-Urnieta A / Lar, 13		
KOPA, 7. MULTZOA		
Euskalduna-Ostadar		1-4
Zarautz B-Urnieta B		3-2
ASTEBURUKO PARTIDAK		
10:00 Danena-Euskalduna / Lar, 13		
16:00 Urnieta B-Usurbil / Lar, 13		
ARETO FUTBOLA		
Legorreta-Euskalduna		5-10
SAILKAPENA		
1	Euskalduna	55 puntu
2	Samaniego	54 puntu
3	Jaixki	51 puntu
ASTEBURUKO PARTIDA		
16:15 Euskalduna-Herrikide / Lar, 13		
ESKUBALOIA		
SENIOR MAILA		
GIPUZKOA 1. MAILA		
Urnieta-Bergara		21-21
SAILKAPENA		
1	Munttarpe	34 puntu
2	Legazpi	28 puntu
3	Urnieta	27 puntu
KADETE MAILA, NESKAK		
EUSKAL LIGA		
Urnieta-Errotaberri		22-32

Larunbatean 16:00tan Urnieta animatzeko deialdi berezia



UKE

FUTBOLA Preferente mailan txanponaren bi aldeak bizitzen ari dira Andoaingo eta Urnietako taldeak. Euskaldunak igoera eta txapelketa lortu ditu, hiru jardunaldiren faltan. Urnietarrek ez dute ezustekorik nahi, eta jaitciera saihesteko garaipena lortzea desio dute. Aukera polita izango dute asteburu honetan, Urnietan bertan. 16:00tan hasiko da Oriokoren aurkako partida.

Keler taldea abantaila hartzen ari da Andoaingo txapelketan

EMAITZAK		
Ganbara Bi-Aker Beltz		3-6
Carpinteria Antonio-Ganbara		4-4
La Almazara-Keler		2-13
Batzokia-D.A.D. Kutxa		1-7
Brew & Roll-Lanbroa		1-3
Academia G.F.-Ekhia		3-2
SAILKAPENA		
1	Keler	30
2	D.A.D. Kutxa	25
3	Aker Beltz	24
4	Carpinteria Antonio	24
5	Lanbroa	18

Saskibaloit taldeen bi partida asteburuan, Allurralden

EMAITZAK		
Ganbara Junior-Añorga		49-39
ATSS-Ganbara Kad.		40-30
Ganbara Inf H.-Ordizia		41-52
ASTEBURUKO PARTIDAK		
19:15 Ganbara Kad.-Askatuak / Lar, 13		
09:00 Ganbara Inf Txiki-ZATS / Lar, 13		



Bigarren urteko kadete mailako jokalaria. UKE

Euskadi mailako ligan lehiatzea zer den probatu dute

ESKUBALOIA Amaitu da kadete mailako neskentzat Euskal Ligan aritzeko esperientzia

Erredakzioa ANDOAIN Azken jardunaldian garaipenarekin agur esatea ametsa zen. Maila horretara iritsita, ordea, lehia handia izaten da. Eta, beraz, ametsak betetzea zailagoa izaten da. Urnietarrek liga lehen postuan amaitu duen Errotaberri taldearen aurka ezin izan

zuten garaipena lortu (22-32). Asteotan bizitako esperientzia, ordea, oso aberasgarria izan da. Kadete mailako beste bi taldeek emaitza onak lortu zituzten. Neskek Jauja mutrikuarrak garaitu zituzten (20-19), eta mutilek Amenabar zarautzarrak (33-29).



Lehen urteko kadete mailako jokalaria. UKE

Bi taldeak pozik

ESKUBALOIA Lehen taldeak igoera jokatzeko txartela ziurtatuta zeukan, ez ordea Bergara bisitariak. Urnietarrak eroso aritu ziren, markagailuan aurea hartuta. Bergararrek, ordea, sailkapena jokoan zuten. Zaletu ugari erakarri zituzten Urnietara, eta azkenerako berdinketa lortu zuten (21-21). Emaitza horrekin bi taldeak igoera faserako sailkatu dira.



UKE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Mikel Iturria urnietarra Euskal Herriko Itzulian

TXIRRINDULARITZA Euskadi-Murias taldeko urnietarra etxeko lasterketa nagusian parte hartzen ari da. Etapa bakoitzaren analisisa eskaintzen ari zaio Aiurri.eus webguneari, Andoni Urbistondoren eskutik. Datozen egunetako kontakizuna, beraz, Aiurri.eus gunean

Erredakzioa URNIETA

Mikel Iturria Urnietako kirolaren historian lekutxo irabazten ari da, mundu mailako onenekin batera Euskal Herriko Itzulian lehiatzen ari baita. Lorpen handia Euskadi-Murias taldearentzat, eta baita Urnietako txirrindularientzat ere. Andoni Urbistondo kazetaria lasterketaren kontakizuna egiten ari da aiurri.eus webgunean, eta bertan aurki daitezke etapa bakoitzaren ostean Mikel Iturriak eskaintzen dizkion adierazpenak.

Erlojuaren aurkako etapa eta Nafarroako *sterrato* etapa igarota, Euskadi-Muriaseko txirrindularientzat asteazkena eta osteguna egun seinatuak izango dira. Tropeleko oilarrek ihesaldiak baimenduko dituztela eta, euskal txirrindulariak adiadi egongo dira.

Nola doakio lasterketa Mikel Iturria urnietarrari? Lehen bi egunetako kontakizunaren la-



Mikel Iturria eta taldekideak Etxe kantariarekin batera. EUSKADIMURIAS

burpena, jarraian. Eta hurrengo etapen analisisa aiurri.eus webgunean irakurgai izango da. Lasterketari buruzko informazioa Andoni Urbistondo kirol kazetariak landuko du.

Lehen etaparen kontakizuna Mikel Iturriaren ahotan

"Nahiko urduri sentitu naiz goizean goizetik: etxeko lasterketan parte hartzen dudana lehen aldia da, 'kabra' erlojupeko bi-

zikletarekin egin dugu lehen zatia, eta gero bizikleta aldatu. Eurria, etxekoak errepide bazterrean animatzen, ez da akats inozorik egin nahi izaten...

Probari dagokionez, Ezkioko biribilguneraino nahiko baldar ibili naizela esango nuke, eta gero, maldan gora hobeto. Denborari erreparatu gabe, sentsazioak izan ditut etaparen amaieran".

Bigarren etaparen kontakizuna Mikel Iturriaren ahotan

"Oso gutxitan pasa zaidana pasa zait gaurko etapari. Manillarra edo heldulekua hautsi zait, eta hortxe bukatu da nire etapa, Iruñetik pasa garen lehen aldian, helmugarako kilometro asko falta zirela. Halako batean bihurtu gune bat eman dut, eta heldulekuarekin eskuan geratu naiz ia-ia. Normalean bestelako matxura mekanikoak izaten ditugu, baina manillarra askatzea ez zait inoiz gertatu.

Zorte txarra izan dut, baina pentsatzen jarrita, ona ere bai, zeren eta pentsatuko duzun bezala, manillarra hautsi eta eroriko bat izateko arriskua oso handia da. Garaiz jabetu eta bizikleta aldatu ahal izan dut, muturrekoren bat hartu aurretik".

Adi, beraz, aiurri.eus webgunean. Datozen egunetan Mikel Iturriaren analisisa bertatik jarraitu ahal izango baita.

Gipuzkoako Herriartekoaren aurkezpen ekitaldia

PILOTA Herriarteko txapelketaren aurkezpen ekitaldia egingo dute datorren apirilaren 16an. Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak aditzera eman duenez, 19 herri ariko dira eskuko lehiari, 16 gomazko paletan, 8 pala motzean eta larruzko paletan, eta beste 4 zesta-puntan. Andoain herriak talde bana aurkeztuko du eskukoan, gomazko paletan eta pala motzean. Eskuzkoak maiatzeko lehen asteburuan hasiko dira, eta gainerakoak maiatzaren 12an.

Andoain-Andoain ibilaldi neurtua, igande honetan

MENDIZALETASUNA Euskaldunak ibilaldi neurtua iragarri du:

- Luzea: Andoain, Belkoain, Atxulondo, Oria, Azkorte, Kraft, Marizulo, Adarra, Bertxin, kanalak, Goiburu eta Andoain (42 Km).
 - Motza: Andoain, Belkoain, Atxulondo, Oria, Azkorte, Kraft eta Andoain (22 Km).
 - Familiarra: Andoain, Axukalte, Uban, Baltzun, Marizulo, Pardaki eta Andoain (13 Km).
- Alde zurretik izena eman beharra zegoen zirkuitua.com webgunean.

Aste Santuan ordutegi berezia Allurralde kiroldegian

KIROLDEGIA Hauxe izango da zerbitzuaren ordutegia, Aste Santuko oporraldian:

- Apirilak 18, 19, 20, 21 eta 22 goizeko 9:00etik eguerdiko 13:15era.

Alkain garaile Ataun-Aian

TXIRRINDULARITZA Kadete mailako txirrindulariek etapa ikusgarria egin zuten, sari ugari lortuz: Etapa, tarteko helmugak (Unai Galarza) eta taldekako sailkapena:

1. Peru Alkain (Andoingo).
18. Iker Atxaga (Andoingo).
25. Ibai Omeñaka (Andoingo).
44. Mikel Goikoetxea (Andoingo).
51. Unai Galarza (Andoingo).
57. Iker Balbas (Andoingo).



GIPUZKOAKO FEDERAZIOA



ITZULIA
AIURRI.EUS | **@aiurri**

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 11

ANDOAIN Informazioa

Ataria informazio zerbitzua, Zergabilketa eta hondakinen informazio puntua tokiz aldatu dituzte, hainbat hilabeterako.

Anbrosia Olabide.

OSTIRALA 12

URNIETA Lehiaketa

Antia literatur lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Sari potoloak. Oinarriak: Urnieta.eus.

Lanen aurkezpena: Lekaio.

URNIETA Korrika

Korrika Txikia eta Korrika, jarraian. 11:30 Korrika txikia eta ekitaldia. 19:00 Kantujira kalez kale. 21:00 Afaría Oianumen. 02:03 Korrika Urnietara iritsiko da. *Egun osoan zehar.*

ANDOAIN Korrika

Korrika Txikia eta Korrika, jarraian. 10:00 Korrika txikia eta ekitaldia. 20:00 Kantujira kalez kale. 21:30 Afaría eta musika Basteron. 01:00 Kalejira herrian barrena. 02:30 Korrika Andoainera iritsiko da. *Egun osoan zehar.*

ANDOAIN Erakusketa

"Emeek emana", 1936tik aurrera emakumeek izan zuten zeregin aktiboa 66 argazkitan jasotzen da. Intxorta 1937 kultur elkarteak landutako erakusketa da. Erakusketa berean Arreseygor eta Lazkanoren zenbait argazki estenopeiko jarriko dituzte. *19:00, irekiera ekitaldia. Bastero.*

LARUNBATA 13

ANDOAIN Ekitaldia

Oroituz Andoainen elkarteak antolatuta, Frankismoak Andoainen zapaldutako andoaindarren aldeko ekitaldia. Lore eskaintza, adierazpenak, musika, bertsoa eta dantza. *12:00, Alfaro plaza.*

URNIETA Topagunea

Euskalpod podcast topagunea. Egun osoko jarduera izango da *11:00-20:00, Lekaio.*



Andoainen denbora luzea daramate pensio duinen alde borrokatzen. **AIURRI**

DONOSTIA Pentsiodunen manifestazioa

Adineko elkarten plataformak eta Gipuzkoako pentsiodunen mugimenduak deituta, manifestazioa deitu dute larunbat honetarako. Bi aldarrikapen nagusi egiten dituzte: Pentsioen urtetik urterako igoera KPlaren arabera egitea eta gutxieneko pensioa 1080 eurokoa izatea. *17:00. Apirilak 13, larunbata. Donostiako Udaletxea.*

ANDOAIN Musika

Alerta Gorria, The Guilti Brigade eta Against You taldeak zuzenean. *22:30, Gaztetxea.*

ANDOAIN Mozorro festa

Salkinen eskutik, 80ko hamarkadan oinarritutako mozorro festa. DJ emanaldiak eta mozorro onenei sariak. *12:00-15:00 DJak Goikoplazan. 18:00-21:00 DJak Zumea plazan.*

ASTELEHENA 15

ESKUALDEA Hauteskundeak

Hauteskundeetarako eroldaren jendaurreko erakusketa, Udal Bulegoetan eta Donostiako Jose Maria Soroa kaleko 23an dagoen Hauteskunde-Erroldaren Bulegoetan. *Apirilaren 15a azken eguna da.*

ASTEARTEA 23

URNIETA Aisialdia

Madscience tailerra (2013-2008). *11:00-13:00, Lekaio.*

ANDOAIN Aisialdia

Film emanadia. *17:30, Gazte Lokala.*

ASTEAZKENA 24

URNIETA Aisialdia

Sukaldaritza tailerra (2013-2011). *11:00-13:00, Denda Berri.*

ANDOAIN Aisialdia

Wii eta Play pantaila erraldoian. *17:30, Gazte Lokala.*

OSTEGUNA 25

URNIETA Aisialdia

Sukaldaritza tailerra (2010-2008). *11:00-13:00, Denda Berri.*

ANDOAIN Aisialdia

Sukaldaritza tailerra. *17:30, Gazte Lokala.*

OSTIRALA 26

URNIETA Aisialdia

Bistaldia Albaolara (2013-2008). *09:15, Irteera San Juan plazatik. Tiritirantes zirko tailerra 17:00-19:00, San Juan plaza.*

ANDOAIN Arropa tailerra

17:30, Gazte Lokala.

ZINEMA

ANDOAIN

Ig, 14: 19:30.

BASTERO

Ast, 15: 19:30; 22:00.

El niño que pudo ser rey

Corgi

Ig, 21: 17:00.

Lar, 13: 17:00.

Astl, 22: 17:00.

Ig, 14: 17:00.

Astl, 22: 17:00.

El Gordo y el flaco

Ay, mi madre

Lar, 13: 19:30, 22:00.

Lar, 20: 19:30, 22:00.


Ig, 21: 19:30.

Astl, 22: 19:30; 22:00.

Astr, 23: 19:30.

URNIETA**SAROBÉ****Smallfoot:**

Igandea, 14: 17:00.



SINOPSIS

**El Gordo y el Flaco (Stan & Ollie)**

Zuz.: Jon S. Baird. **Herr.:** Britainia Handia (2018). **Generoa:** Biografikoa, komedia. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Aktoreak:** Olivia Stan (Steve Coogan), Ollie (John C. Reilly),... **Iraupena:** 97 minutu.

Laurel and Hardyren umorea

Aurkezpenik behar ez duen bikotea da. Filmak agurreko bira azaltzen du, zeina aktore bakoitzaren emazteen laguntzarekin aurrera ateratzen den. Filma protagonista

bakoitzaren nortasunean murgiltzen da. Laurel and Hardyren arrakastaren osteko denbora tartean kokatuta, umorea egiteko oso berezkoa zuten estilo hori agertzen da.

SINOPSIS

**¡Ay, mi madre!**

Zuz.: Frank Ariza. **Herr.:** Espainia (2019). **Generoa:** Komedia. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Aktoreak:** Estefanía de los Santos, Secun De La Rosa, Paz Vega. **Iraupena:** 84 minutu.

Andaluziako herri txiki batean

Bikoterik ez duen emakumezko gaztea, ama hiltzean, sorterrira itzuliko da. Zehazki, Andaluziako herri txiki batera. Amaren ondarea eskuratzeko baldintza batzuk bete beharko

dira. Hilabeteko epean, beraz, protagonistak ezkondu eta haurdun geratu beharko du. Maria (Estefanía de los Santos) eta Segundo (Secun de la rosa) dira protagonista nagusiak.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Naiara Ocon Lertxundi
Zorionak potxoli!
Mila esker egunero ematen diguzun alaitasunagatik.
Maite zaitugu.



ANDOAIN
Irati Ezeiza Usabiaga
Gure neska politak 22 urte beteko ditu apirilaren 26an.
Aitona Esteban eta amona Miren.



ANDOAIN
Jon eta Xuhar Aranburu
Jon eta Xuhar Aranburu lehengusuek 7 urte beteko dituzte apirilaren 14 eta 16an.
Primeran pasa lagunekin merendolan!



URNIETA
Iker
Apirilaren 11n 6 urte beteko dituzu. Asko maite zaitugu!!!
Muxu asko denon partetik.



URNIETA
Uxue
2 urte, zorionak panpoxa!! Egun polita pasa ezazula.
Asko maite zaitugu.
Zure familia. Muxu handia.

ODOL EMAILEAK

URNIETA
Maiatzak 2, osteguna
18:30-20:30. Anbulategi Zaharrean (Denda Berri jubilatuen egoitza).



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 13 eta igandea 14
PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 592 629. Andoain.

URNIETA
Larunbata 13 eta igandea 14
ALDABE: Perkaiztegi, 8. Antziola.
943 336 022. Hernani.
GAUEZ: ALDABE. Hernani.



EGAPEDT

Danta Festa ospakizunean

Joan zen asteburuan Dantzari Festaren XXIV. edizioa ospatu zuten Hernanin. Hainbat herrietako ordezkariek hurbildu ziren, tartean urnietarrak. Argazkian, Egape dantza taldeko kideak Gudarien plazan. Asteburu honetan dantzariak Korrikarekin bat egingo dute. Lekukoa Arantzubiko biribilguneatik Denda Berri biribilguneraino eramango dute.



UDALA

Errepidea

Zelai tabernatik Xoxokara doan errepide zatian asfaltoa bota dute. Trenbidearen aldeko zatian ere gauza bera egin zuten. Xoxokako bi igerak, beraz, egoera onean daude.



AIURRI

Jaietako danborradak

Santa Krutz jaiak gainean dira, eta dagoeneko Peña Santakrutz danborradarako entsegu egunak iragarri dituzte. Apirilaren 24an eta 29an izango dira Leizaran jatetxeko ondoko lokalean, 19:30ean hasita. Peñako danborrada, ohi bezala, jaietako larunbatean irteten da. Herri danborradako entseguak egun eta toki berean, 20:30etik 21:30era.

Korrika Urnietan

Apirilak 12, ostirala
11:30 Korrika txikia eta ekitaldia.
19:00 Kantujira kalez kale.
21:00 Korrika afaria Oianumen.
Urnietako bertso eskolakoen saioa.



Klika
21. korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA

Korrika Andoainan

Apirilak 12, ostirala
10:00 Korrika txikia.
20:00 Kantu kalejira, Zumea plazatik abiatuta.
21:30 Korrika afaria Basteroko ekitaldi aretoan.
01:00 Kalejira.

02:03 Korrika Urnietan
Hernaniarren eskutik jasoko dugu lekukoa eta Andoaini eman.

02:30 Korrika Andoainan
Urnietarren eskutik jasoko dugu lekukoa eta Adunari eman.

Korrikaren jarraipen berezia aiurri.eus webgunean



Aurkezpen ekitaldia. AIURRI

Ondarreta ikastetxearen urteurreneko ereserkia

Ondarreta ikastetxeak 1969-1970. ikasturtean ireki zituen ateak. Ereserkia aurkeztu dute

Xabier Lasa ANDOAIN

Ekitaldi nagusiak 2020ko hasierarako iragarri badituzte ere, ereserkia dagoeneko aurkeztu duten. Joxe Mari Oizartabalek jarri dio doinua, eta Joxerramon Berrondok hitza. Egileez gain, aurkezpenera zuzendaritza, irakasleak, gurasoak, ikasleak eta Ana Carrere Andoaingo alkatea eta Esti Mujika kultura zinegotzia hurbildu ziren.

Oizartabalek adierazi zuenez, “biribilketaren erritmoa dauka abestiak”. Berrondok integrazio prozesuan, kulturartekotasunean eta euskararen transmisioan Ondarretak betetzen duen eginkizuna nabarmendu zuen.

AZKENA

Txiki eta Otaegi gogoan hartuko dituzte

Andoainen frankismoak fusilatu zituen 25 herritarren eta era askotara zapaldu zituztenen aldeko ekitaldi-omenaldia antolatu du Oroituz, Andoainen elkarteak. Miranda pasealekuan izango da, larunbat honetan 12:00tan hasita



Larunbat eguerdian gogoan hartuko dituzte 36ko Gerran fusilatutakoak. Aurtengoan Txiki eta Otaegi kontutan hartuko dituzte. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Frankismoko biktimen oroimena eta eskubideak aldarrikatzea helburu duen Oroituz elkarteak ekitaldia antolatu du, eta bertara fusilatuen, atxilotuen eta gainerako errepresaliatuen senitartekoak hurbildu ohi dira. Fusilatuen aldeko lore eskaintza egiteaz gain, aitortza ekitaldia egiten da bertsolari, dantzari, txalapartari, musikari, abeslari eta hizlarien parte hartzearekin.

Txiki eta Otaegi gogoan

Aurtengo ekitaldian 1975eko irailaren 27an frankismoak erail zituen bost lagunero oroitzen gogoan hartuko dituzte. Bost horien artean ziren Juan Paredes Txiki zaraiztarraren eta Angel Otaegi azpeitiarraren senitartekoak gonbidatu dituzte, eta ekitaldian zehar hitza hartuko dute.

Bestalde, Banda Errepublikanoak *Al alba* abestia bere kantuerrepertorioa erantsi du. Luis

Eduardo Aute abeslariak sortu zuen abesti ezaguna, Francoren gobernuak fusilatu zituen azken bost lagunetik inoiz justizia inpirazio iturri hartuta. Goizean Banda Errepublikanoak kalejira egingo du herriko kaleetan zehar, eta 12:00etarako ekitaldira hurbilduko dira. Iazko ekitaldian 1976ko martxoaren 3an Gasteizen poliziak erail zituen bost langileak hartu ziren gogoan, eta orduan Bandak Lluís Llach *Campañades a morts* interpretatu zuten.

Argentinako kereila hizpide

Nazioarteko legediaren arabera frankismoko biktimei zor zaizkien eskubideak —egia, justizia eta kalte ordaina— hizpide izango dituzte, besteak beste, ekitaldian. Baina ez da gai bakarra izango. Frankismoaren krimenak salatzen eta Espainian frankismoak egun bizi duen inpunitateari aurre egiteko asmoz Argentinako epaitegien ireki zen kereila ere jorratuko da ekitaldian zehar. Izan ere, kereilara batzeko erabakia hartu zuen 2017ko uztailaren Andoaingo Udalak aho batez, mozio baten bidez.

Epaitegiak jatzeko frogak agiriak behar direnez, 1936-1977 epean Andoainen frankismoak eragindako giza eskubideen urraketen inguruko txostena osatzeko konpromisua hartu zuen Oroituz elkarteak Udalarekin, orduan.

Eginkizun horri heldu dio Oroituzek azken boladan, eta biktimen testigantzak jasotzeko asmoz bulegoa irekitzeaz gain, artiboetan ikerketa lanak egin ditu. Orain aurretik eman du amaitutzat txostena, hain zuzen. Une honetan, Argentinako eta Tolosako epaitegien txostena aurkezteko tramitazio guztia bideratzen ari da Udala.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Aiurri astekaririk ez da argitaratuko hurrengo astean

Bitartean albisteak aiurri.eus webgunean.

DATORRENA: APIRILAK 26

www.aiurri.eus